

HEZKUNTZAKO KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Ikasturtea: 2018-2019

Irakaslea: Karin Van Der Worp

Taldea: 32.6

Egilea: Alaitz Iturzaeta Galarraga

AURKIBIDEA:

Freire: ¿Extensión o comunicación? La conciencia en el medio rural.....	3
Experiencias personales y perspectivas.....	5
Comunicación positiva: La comunicación organizacional al servicio de la felicidad..	7
Babel: Cine y comunicación en un mundo globalizado.....	9
Bibliografía.....	11

FREIRE: ¿EXTENSIÓN O COMUNICACIÓN? LA CONCIENCIA EN EL MEDIO RURAL

Paulo Freireren “*¿Extensión o comunicación? La concientización en el medio rural*” (1973) dokumentu honetan, bere ustetan hezkuntzak jokatu beharreko papera barnebiltzen da. Horrela, Freirek, hezkuntzaren helburua bere horretan “gizona” gizaki bihurtzearena dela dio, mundua eraldatzeko beharrezkoa duen jakintza eta akzioko grina hori txertatuz.

Dokumentu honetako (1973) gaia nekazari munduan kokatzen da, eta horrela, agronomo hezitzaileak bere menpe lanean dauden nekazariari egiten dien luzapen edo hedapen okerraz mintzo da. Hau da, agronomo hezitzaileak, hezituak izaten ari diren nekazari horiei komunikazioaren bidez hezitu beharrean luzapen edo hedapenaren bidez hezten dietela. Egoera hau, bere horretan, hezkuntza sisteman irakasle hezitzaileen eta ikasle hezituen arteko harremanaren metafora bat izango litzateke.

Freire (1973) lehenik eta behin, “**extensión**” edo **luzapen** terminoaz mintzo da, eta honek biltzen duen inposaketa eta irakaskuntza pasiboaz. Luzapena, bere baitan, norbaiti zerbait luzatzean datza, bere funtzioa ezagutza transferitzea da, ideia eta ezagutza batzuk kasu honetan nekazariarengan txertatzea, hau depositu bilakatuz. Ez du nekazariaren eta agronomoaren arteko komunikazioa bultzatzen, ezta ere nekazariaren eraldaketarako gaitasuna eta kritikotasuna loratzen. Hezitzaileak, hezitzen ari den sujetu horri, zenbait ezagutza transmititzeko akzioan soilik datza luzapena, hezitua den hori sujetu pasibo bilakatuz, eta transmititzen dion informazio, ideia, eduki zein ideologia modu inposatu batean txertatuz, hezitua egoera berriei edo ustekabekoei erantzun bat burutu ezinik utziaz.

Honek, erabateko paralelokotasuna erakusten du gaur egungo hezkuntzarekiko. Izan ere, gu, ikasleok, sistema kapitalista hau menderatzen duten klase dominatzailearen mesedetan hezituak izaten gara, sistema honen erreprodukzioa, eta horrela, bere helburu nagusia den kapitalaren metaketarekin aurrera jarraitzeko. Eskolan, ikasleok sujetu pasibo bihurtzen gara, nekazarien kasuan bezala depositu batzuk bilakatuz. Batzuen interesen arabera dauden eduki, informazioa, portatzeko eta obeditzeko moduak... barneratzen ditugu, horren zergatia zalantzan jarri gabe. Eduki eta informazio amaigabeaz betetzen gaituzte, benetan bere funtsa ezagutu gabe. Kritikotasunaren, gure izaeraren, gure ideologiaren, mundua eraldatzeko dugun gaitasunaren... hedapen hori ezkutatu egiten digute ez baitigute inondik inora ere erakusten, jakin badakitelako sistema honen kontra erabil dezakegun “arma” bat dela. Horrela bada, ikasle sumiso, menpeko eta obediente bilakatzen gara, ikasi ditugun eduki guzti horiek hilabete batzuetan ahazten ditugun ikasleak, eta horrela, klase dominatzailearentzat objektu perfektu eta manipulagarriak. Egia da, badaudela zenbait gradu, Gizarte Hezkuntza kasu, gogoetara eta kritikotasunaren garapenera bultzatzen gaituztenak, hala nola, gizarte honen zapalkuntza eta injustiziak identifikatu eta horiek garaitzeko metodo edo baliabide batzuk sortzen laguntzen digutenak. Hala ere, baliabide material zein pertsonal horien sorrera, sistemaren baitan baldintzatua dago; hau da, hezitzaileak berak sistema

eraldatzeko gaitasuna izan dezake, baina sistema kapitalista bere osotasunean ahulduko, urratuko edo zalantzan jarriko ez duen jardun puntual batzuen bitartez.

Luzapen honen erabilera da, Freire (1973) berak kritikatzeko duena, eta honen aurrean irakaskuntza metodo bezala proposatzen duena **“komunikazioa”** da. Komunikazioak bere aldetik, errealitate historiko batean aurkitzen den gizaki horrengana iristea du funts nagusia. Gizaki horri kontzientzia piztuz eta irakatsiz. Modu honetara, sujetu aktibo bihurtuko da eta errealitatea eraldatzeko gai izango da, hau da, edozein arazori aurre egiteko gai. Ez da beste pertsona baten ideologia edo hitzekin bete izango, baizik eta ikasitako hori aplikatzeko gai izango da bere egunerokotasuneko edozein situazio konkretutan. Bere printzipioak, ideiak eta eskubideak defendituko ditu edozein injustiziaren aurrean, eta horrela, kasu honetan nekazaria bizi den garaiko sistema horri (feudalismoa dela uste dut) aurre egiteko eta eraldatzeko gai bihurtuko da. Modu honetan, agronomoa bere hezitzaile izango da eta paper garrantzitsua jokatuko du. Azkenean, mundua globalki ulertzen lagunduko dio, eta bere esperientziak nekazariarenarekin partekatuko ditu aholkuak emanaz eta arazoei nola aurre egin azalduz, finean, bere laguntzailea izango da, eta ez bere “nagusia” edo agintaria.

Klasean eduki genuen eztabaidaren ostean, nik uste dut nahiko argi gelditu zela egungo hezkuntza sistemarekin ez gatozela bat. Hezitzaile edo irakasleen paperak ez duela beste batzuen mesedetan dagoen ezagutza transmititzen oinarritu behar uste dut, baizik eta kolektiboki gu denon interesetara (puntu bat arte noski) oinarritzen diren edukien irakaspenean. Hau da, hezitzaileen funtzioa eduki bat edo informazio bat transferitzea baino askoz gehiago izan behar duela uste dut: guri kontzientzia bat sortzea, hausnarketarako lekua utzi eta horretara bultzatzea, eztabaidak bideratzea, ikuspuntu desberdinak erakustea..., eta beraiek gure bidean gure laguntzaile izan behar direla. Horrela, bakoitzaren nortasuna eta ideien sorrera edo eratzearen alde egin behar dute, eta ez hezkuntza sistemak bere baitan biltzen dituen eduki horietara mugatu.

Horrela bada, eta Freireren (1973) ideietan oinarrituz, hezkuntzak berak komunikazioa bultzatu beharko lukeela uste dut, eta ez gaur egun bultzatzen duen luzapen edo hedapena. Klase dominatzailearen mesedetara dagoen edukia emateaz utzi, eta ikasleen mesedetara egingo duen ezagutza transmititu behar duela deritzot. Modu honetan, sistema hau eta honek barnebiltzen dituen ezberdintasun eta injustiziekin bukatzeko baliabide bat bihurtuz hezkuntza: gure kritikotasuna, kontzientzia, ideiak eta ideologia garatzen utziko digun eta gure artean harremantzeko eta komunikatzeko eredu berri bat sortuko duen baliabide bat hain zuzen ere. Autoreak dioten bezala: *“Conocer no es el acto, a través del cual un sujeto transformado en objeto, recibe, dócil y pasivamente, los contenidos que otro le da o le impone. El conocimiento, por lo contrario, exige una presencia curiosa del sujeto frente al mundo. Requiere su acción transformadora sobre la realidad. Demanda una búsqueda constante. Implica invención y reinversión.”* (Freire, 1973, 10.orr.)

EXPERIENCIAS PERSONALES Y PERSPECTIVAS

Carl Rogers-ek idatzitako “*El camino del ser*” (1987) testuko “*Experiencias personales y perspectivas*” atalaren helburua komunikatu ahal izateko errotu edo bihurtu beharreko pertsona mota horren sorkuntzan edo gorpuztean datza. Hau horrela izanik, testu honetan bere esperientzian, eta modu honetan, burututako taldeko lanketetan aurrera eramandako praktika eta ateratako ondorioak plazaratu eta azaltzen ditu. Horrela, komunikazio interpersonal bat errotzeko elementuak identifikatzen ditu bere lan hauetan, jarraian azalduko ditudanak hain zuzen ere:

Entzuteko gaitasun sentikorra izatea:

Autoreak testuan (1987) dio, benetan norbait entzutera iristen denean, benetako komunikaziora heltzen dela, eta horrek, bestearekin sortzen duen zubi horrek, benetako poztasuna sorrarazten diola. Aldi berean, beste pertsonari entzutea, transmititu nahi duen mezu hori entzuteaz edo ulertzeaz aparte, pertsona hori inguratzen duten kontzeptu unibertsal horiek konprenitzean datza, unibertsalki egia den horrekin kontaktuan aurkitzea hain zuzen ere. Rogersek (1987) esfera guztietan entzutearen garrantzia azpimarratzen du, hala nola, hitzak, pentsamenduak, sentimenduak, ahotsaren tonua, mezuaren esanahia... entzutea eta interpretatzearen beharrezkotasuna.

Nire iritziz, Rogers zuzen dabil entzuteko gaitasunaren eta honek barnebiltzen dituen gauzei dagokienez. Izan ere, beste pertsona batengatik begirada hutsez konprenitua izatea munduan dagoen sentazio lasaigarri eta pozgarrienetako bat da. Klasean esan bezala, denbora guztian modu kontziente edo inkontziente batean komunikatzen ari gara, nahiz eta askotan helarazi nahi dugun mezu hori ondo ez transmititu edo ezkututzen saiatu. Mezu horren transmisio okerra edo hura plazaratzeko lotsa edo beldurra beste pertsonagatik konprenitua izatean, eta honek, zuk barruan duzun benetako mezu hori ulertzean, hau da, besteak zurekiko edo zuk berarekiko entzuteko gaitasun sentikor hori izatean, benetako komunikazio baten parte zarela konturatzen zara, batak besteari transmititu nahi dion mezu hori benetan ulertu eta iritsi dela konprenituz, eta komunikazioaren oinarri den elkar-ulertze fase hori burutuz.

Entzuna izatea:

Rogersek (1987) atal honetan azpimarratzen du entzuna izatearen beharra eta satisfazioa. Izan ere, berak dio entzuteak, bere izatea beste batzuek kaptatu edo barneratzea eragiten diola. Benetan pertsona bat gaizki dagoenean norbaitek entzuten badio, soilik entzun, inongo aholkurik edo hura moldeatzeko saiakerarik egin gabe, sentazioa deskribaezin bat sentitzen duela adierazten du. Sujetuak, ideiak ordenatzen ditu hitz egiterakoan, eta hauek ahots altuan adierazterakoan. Hau horrela izanik, autoreak (1987) azpimarratzen du modu aktibo, sentikor, eta interlokutorea epaitu gabeko modu batean eman behar dela entzutearen baliabide edo gaitasun hori aurrera.

Hau kontuan izanik, entzuna izatea erabat garrantzitsua dela iruditzen zait, hala nola, entzuteko gaitasunarekin erabat lotuta dagoen puntu bat delarik. Entzuteko gaitasun

erreal eta benetan zuzena indibiduo gutxik dutela iruditzen zaidan arren, denoi gustatzen zaigu entzunak izatea. Askotan nahikoa da, gure arazoak kontatu bitartean aurrean dugun pertsona isilik egotea eta benetako konpresio bat adieraztea gu hobeto sentitu eta benetan ditugun arazo horiek gure buruan modu ordenatu batean identifikatu ahal izateko. Beraz, entzuna izatea eta entzuteko gaitasuna izatea komunikazioaren bi elementu oso garrantzitsu direla iruditzen zait. Izan ere, gure etorkizuneko lanbidean, hezitzen edo hezituko ditugun pertsonak ondo entzutea komeni zaigu, eta ez soilik ahozko komunikazioan zentratuz, baizik eta gorputz, ahots tonu... komunikazioa ere kontuan izan behar dugu, hezituei beraien garapen eta ibilbidean zehar beraien arazoak identifikatzen eta konpontzen lagundu nahi badiegu.

Benetakoa izatea:

Testuaren (1987) zati honetan autoreak zure benetako nortasun hori ateratzeko beharra eta garrantzia azpimarratzen du. Zure benetako nortasunarekin bat jotzen duzunean, zure barnera iristen zarela dio Rogersek (1987), eta beste pertsonarekin zure benetako nortasunaren baitan komunikatzen bazara, bestearikiko jasoko duzun erantzuna ere bere nortasunaren baitakoa izango dela. Beste pertsonak bezalako ez izatea, hau da, zu zeu izatea da giltza indibiduo bezala zure garapen pertsonala bultzatzeko.

Benetako izatea oso garrantzitsua da gizarte hezitzaile edo pedagogo baten lanean, izan ere, gure lanean, indibiduoak zerbait kontatzen dizunean ez epaitzea da ardatza. Bera izaten uztea eta beste pertsona hori ez moldeatzea, baizik eta bide okerretik badoa, zuk hari bide zuzena erakustea eta bere bidelagun izatea, betiere bere nortasunarekin bat egingo duen edo gehien hurbilduko den bidea aukeratuz. Pertsona bakoitza mundu bat da, eta pertsona bakoitzak bere nortasun propioa du. Egia da, gizartean bertan, talde sozial baten edo beste baten parte izateko gure nortasuna puntu bat arte aldatzen dugula, eta egin nahi ez ditugun gauzak egiten ditugula nolabait enkajatzearren. Gauza horiek beti larriak ez badira ere, badaude zenbait gauza indibiduo jakin batzuei arazoetan sartzea ekarri dietenak. Beraz, gure ardura izango da arazo horien erroa identifikatzea, nondik datorren ikertu eta soluzio bat planteatzea, betiere norbanakoaren nortasunarekin hurbilen egongo den soluzio bat bilatzen saiatuz.

Emateko eta jasotzeko askatasuna:

Azkeneko atal honetan, autoreak, maitasuna eta gainontzeko sentimenduak emateko eta jasotzeko askatasun eta gaitasunaz mintzo da. Sentimendu positiboak eman edo jasotzeko beldurra gutxitzen zaigun heinean, beste pertsona apreziatzea errazagoa gertatzen dela dio Rogersek (1987). Horrekin batera, gure buruarekin geroz eta gusturago egon, orduan eta positiboago ikusten ditugu gure ingurukoak, eta orduan eta aprezio handiagoa diegu. Bestetik, ez bagara mirestuak eta baliotsuak sentitzen, gainerakoekiko gure sentimenduak ere negatiboak bihurtzen dira, gainerako pertsonen potentziala lausotzen dutelarik.

Horrela bada, jakin badakigu, oreka emozional hori lortzea edozein pertsonarentzat oso zaila dela, edo lortzen bada behintzat, irautea bera oso zaila suertatzen dela. Hala ere,

kontuan izan behar dugu lan honetan duen garrantzia. Sentimenduak partekatzea, maitasuna jaso eta banatzea, hezitzaile lanean oinarritzko zimenduetako batzuk dira komunikazio ona bermatzera begira. Beraz, hezitzaileon erronketako bat, benetako oreka emozional hori mantendu eta zabaltzearena dela uste dut.

COMUNICACIÓN POSITIVA: LA COMUNICACIÓN ORGANIZACIONAL AL SERVICIO DE LA FELICIDAD

José Antonio eta Alejandro Álvarez-Nobell-ek idatzitako “*Comunicación positiva: La comunicación organizacional al servicio de la felicidad*” (2013) testuak komunikazio positiboa lortzea eta sustatzea du helburu, hots, zuzentzen den pertsona horien ongizatea eta zoriontasun psikologikoa bultzatzen ditu. Hausnarketan ikusiko duzuen moduan, gehienbat enpresa eta organizazioen esparruan zentratutako komunikazio positiboa jartzen du praktikan.

Lehenik eta behin, **gizakiaren zoriontasunaz** mintzo da, eta hura lortzeko bi etapetan (hedonikoan eta eudaimonikoan) banatuta dagoen bide bat jarraitu behar dela azpimarratzen du. Bideko lehenengo etapa, etapa hedonikoa izango litzateke zoriontasuna azaletik lantzen duena, hau da, zoriontasun subjektibo bat bilatzen duena; eta bigarrena, berriz, etapa eudaimonikoa, zoriontasun sakonago eta barruakoago batean oinarritzen dena, zoriontasun psikologikoan hain zuzen ere. Bi hauen konbinazio zuzenak gizakiaren zoriontasunera eramaten gaituela dio testuak (2013).

Hala ere, zoriontasunaren lorpena deskriba edo planteatu ezin daitekeen auzi bat dela iruditzen zait. Izan ere, zoriontasuna bera sobrealoratua egoteaz gain, modu indibidual batean lortu nahi dugun auzi bat bezala ikusten dut, hau da, bakoitzaren zoriontasuna bilatzen jarduten dugu bizitza osoan zehar nahiz eta zoriontasun horren bidean beste batzuen zapaltzen dugun. Horretaz gain, zoriontasuna bera, momentu jakin batean sentitzen den sententzia bat iruditzen zait, debora luze batean edo bizitza osoan sentitzen duzun sententzia bat baino. Bestetik, zoriontasuna, sistema kapitalistaren baitan erabat artikulatua dagoen egitura bat dela iruditzen zait. Familia nuklear bat, lan duin bat, etxe bat, auto bat... edukitzea dira nolabait esaterako bizitza perfektu hori eta zoriontasun hori ahalbidetuko dizuten ezaugarriak. Beraz, hau lortzen ez baduzu, nolabait gizarteko dinamika horretatik baztertuta sentitzeaz gain, zahar eta bakarrik hilko zarela iruditzen zaizu, edo zure bizitza gutxiesten duzu... Horregatik, bizitzako zure aspirazioa, modu batera edo bestera, bizi-eredu hau lortzearena da, eta behin lortuta, pixka bat arazoren bat suertatzen bada edo moldatzen joatea. Bestetik, egia da ere, gizaki bakoitzari ez digutela gauza berdinek egiten zoriontsu, eta azkenean, gure baitan bakoitzak gustuko ditugun gauzak egiten aurkitzen dugula zoriontasuna nolabait esaterako, nahiz eta jarduera horiek batzuetan ez datozen bat sistemak berak inposatutako zoriontasun kanon horrekin.

Zoriontasuna komunikazio positiboan atalari erreferentzia eginaz, psikologia positiboa hala nola komunikazio positibora garraiatzea edo komunikazio positiboan

bilakatzea oinarrizkoa dela esaten du testuak. Zoriontasuna existitu ahal izateko, pertsonen arteko komunikazioa eta norberaren barneko komunikazioa behar dituela baieztatzen da. Beraz, testuak (2013) berak, enpresen edo organizazioen barruan **barne komunikazio positibo** bat egoteak enpresa horren kanpo alderako jarduna erabat positibo bilakatzen duela dio. Hala nola, langileen arteko atmosfera positibo horrek, bezeroenganako atmosfera eta elkarrekintza ona bultzatuko dituela adierazten du. Horren harira, barneko komunikazio positibo hori egikaritu ahal den hainbat eremu bereizten ditu. 5 eremu ezberdin hauek langileen arteko atmosfera eta beraien ongizate pertsonalaren alde hitz egiten duten arren, argi ikus dezakegu dinamika hau enpresen, eta horrela, sistema kapitalistaren mesedetarako dela. Izan ere, neurri ezberdin hauek, langileen azaleko ongizate bat bultzatzen badute ere; langile hauek efizienteagoak eta sortzaileagoak izateko, horrela gehiago produzitzeko, eta enpresaren irabaziak handitzeko helburua dago atzean. Finean, kapitalaren metaketa oinarri duen sistema kapitalistak, enpresak bitartekari gisa erabiltzen ditu modu batean esaterako, bere helburu hori lortu ahal izateko.

Zoriontasuna eta publizitate positiboari dagokionez, atal honetan, beste publizitate mota bat sustatzearen beharra azpimarratzen du testuak. Finean, egungo publizitateak zoriontasun faltsu bat zabaltzen duela dio, hau da, saltzen diguten produktu hori erosteak zoriontsuago egingo gaituen ustea zabaltzen duela defendatzen du. Horren aurrean, publizitateak balore batzuk transmititzeko tresna izan behar duela dio autoreak (José Antonio eta Alejandro Álvarez-Nobell, 2013), eta ez zoriontasun faltsu baten isla lainotsu bat.

Nik ez dut publizitatearen aldaketa hau erreala ikusten, sinpleki komunikazio eta zerbitzuen esfera guztia kapitalismoak bere baitan xurgatu duelako beste hainbat eremu bezala, eta bere interesetara erabiltzen duelako. Hala nola, berari komeni zaizkion “balio” edo printzipioak (kontsumoaren balioa: gure beharrak asetu ahal izateko geroz eta gauza gehiago edukitzeko beharraren uste faltsua) zabaltzen jarraituko duelako, bere irabaziak eta legitimitatea handiagotzen jarraitzeko. Beraz, ez da erreala, balore individualistak, lehiakorrak, esplotatzaileak... transmititzen dituen sistema batean beste balore ezberdin batzuen eraikuntza, zeinak aipatu ditudanekiko antagonikoak izango diren.

Amaitzeko, **kanpo komunikazioari** lotuta, eta horrela, harreman publiko positiboak sustatzera bidean, testuan (2013) “Organizational Virtuosness” delakoa azaltzen zaigu. Honek, nolabait, enpresaren eudaimoniaren sorrera hori legitimatzen du, enpresaren barne komunikazioan zein kanpo komunikazioan ezaugarri positiboak ekarriko dituen. Modu honetan, enpresaren baitako komunikazio positibo hori eraikitzen bidean 5 faktore edo lan ekimen bultzatzen ditu, hala nola, hauek benetako komunikazio positibo baten egikaritzea bultzatuko dutenak. Eta baita ere, dirua irabaztea garrantzitsua den arren langileen ongizatea garrantzitsuagoa dela argi izango dutenak.

Nire iritziz, testu osoan plazaratu dudak bezala, psikologia zein komunikazio positibo hau enpresen baitan kapitalismoaren beste mekanismo bat bezala ulertu behar dugu. Aurpegi zuriketa hutsal bat da nire ustetan. Izan ere, testu honek denbora guztian

langileen ongizate pertsonala, psikologikoa zien fisikoa aipatzen dituen arren, kontziente izan behar gara ongizate horren alde jokatzearren arrazoi bakarra enpresaren produktioa, eta horrela, honen irabaziak handitzearena dela. Ulergaitza suertatzen da, bi klase antagonikotan eta hauen arteko etengabeko lehian oinarritutako gizarte batean, ekoizpen baliabideen, eta hala, boterea duen klaseak, bestearen onurarako zerbait sortu edo aurrera eramango duenik, langile klasea desjabetua eta esplotatua izatearen arrazoa boteredunek aurrera eramaten duten kapital metaketa ankerraren ondorio denean. Burgesiak beraien interesetara estrukturatzen, antolatzen eta manejatzen duen sistema hau, hots Sistema Kapitalista, kapital metaketaren jardunean, propietate pribatuaren jabetzan, materialen zein pertsonen merkantilizazioan, eta horrela, batzuen aberastasunean eta besteen pobrezian oinarritzen dena, klase zapalduaren mesedetara jardutea erabat gertaezina edo ezinezkoa dela deritzot. Izan ere, klase dominatzaileak boterea izaten jarraitzeko, langileen lan- indarra, eta beraz, hauen esplotazioa behar-beharrezkoak dituzte. Beraz, testuak biltzen dituen jardun edo erreforma berritzaile hauek, klase burgesaren nagusitasuna eta aberastasuna handitzeko mekanismoak direla uste dut, eta ez langile klasearen bizi- eredia edo ongizatea bermatuko duten printzipioak. Honen isla argia dugu testuan azpimarratu dudana esaldi hau: “No solo parece que los trabajadores felices serán más productivos y eficientes, sino que además enfermarán menos, provocando menos absentismo y por tanto menos costes para la empresa.” (José Antonio eta Alejandro Álvarez- Nobell, 2013, 96. Orr.)

BABEL: CINE Y COMUNICACIÓN EN UN MUNDO GLOBALIZADO

Babel (2006) pelikula Alejandro González Iñárritu mexikarrak zuzendua, egungo gizartearen globalizazioaren eta kultura ezberdinen arteko isla garbia da. Pelikulak (2006), bere baitan, hiru istorio ezberdin barnebiltzen ditu, nolabait esaterako lotura zuzena dutenak. Bertan, kulturen arteko ezberdintasunak eta zapalkuntzak agerian gelditzen dira, baita ere globalizazioaren eta teknologia berrien garapenaren eragina. Hala ere, hiru testuinguru edo istorio ezberdin horietan parte hartzen duen jendeak antzekotasun bat dute, gizaki izate hutsagatik pairatzen duten tristura, beldurra, komunikazio falta... eta horrelako sentimendu edo egoera ezberdinak. Finean, filmaren zuzendariak, dioen bezala, “Lo mejor de Babel fue que empecé rodando una película acerca de las diferencias que separan a los seres humanos, las barreras físicas y el idioma, pero en el camino me di cuenta de que estaba haciendo una película acerca de lo que nos une, el amor y el dolor. Es muy posible que lo que hace feliz a un marroquí y a un japonés sea muy diferente, pero lo que nos hace sentir mal es lo mismo para todos.”, [filmaren hasierako helburua kulturen arteko ezberdintasunak aurkitzea zen arren, kultura ezberdin horietako pertsonen arteko berdintasunak aurkitzen eta islatzen amaitu dut.] (González Inárritu, 2010, 117-118 orr.).

Beraz, nire hausnarketa pelikula honen inguruko testuaren baitan egina egongo da, “*Babel: Cine y comunicación en un mundo globalizado*” (2010) izenekoa, eta Carmen Pereira Domínguez, Jordi Solé Blanch eta Luis Fernando Valero Iglesiasek idatzia.

Hausnarketa, beraz, hiru ataletan banatua agertuko da: globalizazioaren inguruan, garapen teknologikoaren erreflexioan eta filmaren formakuntzaren helburu den harreman interkulturallean.

Globalizazioaren inguruan:

Pelikulan (2006) argi islatzen da mendebaldeko kulturaren eta bertako jendearen nagusitasuna. Lehenik eta behin, familia amerikarrak bere seme- alabak zaintzeko kontratatua duen andre mexikar “ilegalean” ikus dezakegu. Mexikotik Ameriketarako immigrazio hori hainbat zailtasunekin eta modu ilegalean burutu beharra, lanaren beharrak, eta horrela, diruarenak deitua. Familia amerikarrak Marokora egiten duen bidaiari, berriz, ez dute inongo zailtasunik topatzen eta ez dute inongo momentuan legearen aurrean modu “ilegal” batean burutzen bidaiaria. Ekialdeko kulturen gutxiespen horren beste adibide garbi bat dugu, familia amerikarrari eta beraiekin autobusean bidaiatzen duten turistei Marokon egiten dieten harrera. Marokiarrek turista hauek pertsona garrantzitsuagoak eta indartsuagoak bezala ikusten dituzte, hala nola, sujetu perfektuak. Horretaz gain, txundigarriena iruditzen zaidana zera da, herriko biztanle horiek turistei ematen dieten laguntza erraldoia turista amerikarra tirokatua izaten denean. Nahiz eta beraiek ezer ez duten, duten gutxi hori emakume tirokatuari laguntzeko erabiltzen dute, eta hori gutxi izanik, zorretan ez dute inongo ordainsaririk onartzen.

Aurrerapen teknologikoak:

Aurrerapen teknologikoei dagokienez, argia da Txinako eta Marokoko desberdintasuna. Bi herrialdeen artean ematen den talka modu estetiko zein bizimoduan oso agerikoa da, eta finean, garapen teknologikoak herrialdearen garapenean duen eragina begi-bistakoa da. Hau da, ongizateari eta bizi-esperantzari erreparatuz, argi ikus dezakegu Txinako biztanleen ongizatea eta bizi-esperantza askoz handiagoa dela Marokokoena baino. Izan ere, medikuntzan, eta egunerokotasun batean ongizatea bermatzen duten materialetan, izan janarian, argindarrean, ura edozein momentutan edukitzearen gaitasunean... argi ikus daiteke Txinako biztanleak bizi-esperantza luzeago batera bideratzeaz gain, egunerokotasun batean hobeto eta erosoago bizitzera bideratzen dituela. Bertan, adibide garbia dugu pelikulan (2006) agertzen dena, emakume amerikarra tirokatzen dutenean. Momentu horretan, emakumea, Marokon dagoen herri txiki batera eramaten dute sorbaldan duen zauria sendatzera. Bertan, ez dute inongo medikuntza materialik ebakuntza bat aurrera eramateko, ez eta zauria sendatzen saiatzeko. Medikuari dagokionez ere, beste herrixka batetik etorri beharra duela ikus dezakegu, herri guztietan ez baita medikurik, eta horrekin jarraiki ez dela mediku espezializatu bat. Hala ere, emakumea nolabait sendatzea lortzen duten arren, teknologiaren garapen horren kontraste handiena, Estatu Batuetako helikopteroa etortzen denean ikusten da. Emakumeak ospitalera joan behar duenez, bere gizona Estatu Batuetako enbaxadarekin harremanetan jartzen da eta Ameriketara bueltatzen dira atentzio mediku ona izan dezan eta ebakuntza bat egin diezaioten. Beraz, hemen garbi ikus dezakegu, goran aipatu

dudan moduan, aurrerapen teknologikoak herrialde horietan bizi diren biztanleen ongizatea eta bizi-baldintza zein bizi-esperantza baldintzatzen dituela zuzen zuzenean, baina baita faktore politiko (enbaxadarekin harremana), sozial zein ekonomikoak (aurrerapen medikoak).

Harreman interkulturalaren garrantzia:

Filmaren (2006) helburua, hasieran aipatu dudan moduan, kulturen arteko ezberdintasunean oinarrituta, kultura osatzen duten biztanleen berdintasunak aurkitzean datza. Hau da, Babel filmak (2006) argi islatzen duen arren kultura ezberdinen aniztasuna, eta bakoitzaren ohiturak, sinesmenak, eta nola batzuk besteengatik jazarriak dauden izan globalizazioa edo teknologiarengatik; aldi berean, argi islatzen du, mundu honetako gizaki guztiek badituztela nolabait esateko konpartitzen dituzten ezaugarri edo kualitate batzuk edozein kulturatakoak izanda ere. Ezaugarri horiek sentitzen dugun tristura, beldurra, poza, komunikatzeko ezintasuna edo gaitasuna... izango lirateke. Hala nola, argi islatzen da, gizon amerikarrak bere emakumea tirokatzen dutenean sentitzen duen tristura eta mina, eta baita neska Txinatarrak gorra izateagatik komunikatzeko duen ezintasunagatik sortzen zaion inpotentzia, edo emakume mexikarrak zaintzen dituen umeak galtzean sortzen zaion antsietate eta ezinegona. Azken finean, filmak (2006) berak, erakutsi nahi duena eszena ezberdin hauen metaforaren bitartez zera da, kultura ezberdinetako jendea dagoen arren munduan, bakoitza bere ohitura, sinesmen, erlijio zein ideologiekin, finean, denei gaizki edo triste sentiarazten dizkieten gauzak berdinak direla: maite duten norbait hil zorian edo desagertu dela ikustea, maitatuak izateko edo ulertuak izateko ezintasuna edukitzea, komunikatzeko gaitasun eza...

Beraz, pelikulak orokorrean helarazten digun mezua, desberdintasunean berdinak garenarena da. Kulturak separatzen gaituen arren, gizakia izate hutsagatik sentitzen ditugun emozioek batzen gaituztela. Eta nire ustetan, bai hezitzaile zein gizaki huts moduan kontuan hartu beharreko faktore ezinbesteko bat da.

Bibliografia:

Antonio Muñiz-Velazquéz, José y Álvarez-Nobell, Alejandro (2013): *Comunicación positiva: La comunicación organizacional al servicio de la felicidad*. Revista de Comunicación Vivat Academia, pp. 90-109.

Paulo Freire (1973): *¿Extensión o comunicación? La concientización en el medio rural*. Siglo XXI Argentina Editores S.A., pp. 9-41.

Pereira Domínguez, Carmen; Solé Blanch, Jordi eta Fernando Valero Iglesias, Luis (2010): *Babel: Cine y comunicación en un mundo globalizado*. Polis, Revista de la Universidad Bolivariana, Volumen 9, Nº 26, pp. 109-132.

Carl Rogers (1987): *El camino del ser*. Editorial Kaidós. Pdf, pp. 13-31.

Bibliografia gehigarriak:

Wikipedia (2019): *Babel (filma)*. Webgunea,
([https://es.wikipedia.org/wiki/Babel_\(pel%C3%ADcula\)](https://es.wikipedia.org/wiki/Babel_(pel%C3%ADcula)))

Babel pelikula (2006): <http://www.sensacine.com/peliculas/pelicula-20151/> online.